

## FUNTSEZKO ELKARTEA:

Lehenik eta behin, banbu hornitzaileak behar ditugu. Hauek behar dugun banbu guztia eskainiko digute. Adibidez, Tecuatro Bambu Sl. - Alcobendas enpresarekin lan egin genezake. Enpresa hau Madrilen kokatuta dago eta hortaz, nahiko erraza eta merkea izango zen esportazioa distantzia dela eta.



Hornitzaile hau ezinbestekoa da gure produktuaren ekoizpenerako. Haien kooperazio barik ezin genezake enpresa sortu beharrezkoa baita banbua izatea.

Produktua eta garraioa ordaindu beharko dugu baina lehen azaldu dugun bezala, garraioa ez zen hain garestia izango Bilbotik Madrilerara 400km inguru baitaude. Enpresa honek eskaintzen duen banbu kalitatea ezin hobea da eta horrek gure boligrafoen kalitatea hobetuko du.

Gainera, banbu kalitatea nahiko ona denez, boligrafoen erresistentzia eta diseinua hobe izango da. Azkenik, errazagoa izango zen kalitate oneko banbuarekin lan egitea.

Azkenik, boligrafoak egiten dituen enpresak behar ditugu. Gurekin lan egiteko prest dagoen edozein enpresa balio du. Haiekin kontaktatzeko, lehenik eta behien gure produktua aurkeztu egingo diegu gure produktuaren azalpen batekin. Geroago, haiek erabaki egin behar dute ea gurekin kolaboratu nahi badute.



Enpresa bat baino gehiago gurekin kolaboratu nahi badu, guk erabakiko dugu zer enpresa lan egingo duen gurekin. Horretarako, enpresa horrek transmititzen digun konfiantza eta haiekin dugun harremana baloratu egingo dugu.

Bai banbuaren enpresarekin bai boligrafoaren enpresekin harreman estuak izan nahi ditugu. Horrela kolaborazioaren arrakasta ziurtatuko dugu eta haiekin lan egitea askoz ere errazagoa eta erosoagoa izango da.

Amaitzeko, enpresako bazkideak gure ezagupenaren eta abileziaren arabera ekarpen hauek egingo ditugu: Leyrek kontuak kudeatuko ditu ekonomian duen jakintza aplikatuz. Aidak eskaeraren kontrola hartu eta modu horretan, hornitzaileekin (banbu enpresa) sortu ahal diren arazoak konpontzen saiatuko da. Beste aldetik, Itsasok lan berdina izango du baina boligrafoen enpresarekin. Azkenik, Itxasnek, Aidak, Itsasok eta Leyrek kapitala jarriko dute enpresa haz dezan.